

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DEBAKO UDALA

Kontu-hartzailletza eta idazkaritzako Administrari plaza barne sustapen mugatuaz hornitzeko, oposizio-lehiaketan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzea, epaimahaikideak izendatzea eta lehen ariketa egiteko eguna finkatzea.

Debako Udaleko lanpostuen zerrendan laster hutsik geratuko da Kontu-hartzailletza eta idazkaritzako Administrari plaza. Lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketaren deialdia eta oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eman ziren argitara 2016ko martxoaren 16an (51. zenbakia).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta aurkeztutako eskabideak eta agiriak aztertu ondoren, deialdiaren 4. eta 5. oinarriek adierazten dutenez, Alkateak honakoa erabaki du:

Lehenengo: Hautaprobetan parte hartzeko onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea, eta baztertzea eragin duten arrazoiak zehaztea:

15385333N Onartua.

Baztertutako izangaiek hamar laneguneko epea izango dute, iragarki hau argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, baztertzea eragin duten akatsak konpondu edo erreklamazioak aurkezteko.

Behin-behineko zerrenda behin betiko bilakatuko da erreklamaziorik aurkezten ez bada. Erreklamazioak aurkezten badira erabaki baten bidez ebatziko dira. Erabaki hori argitaratu egingo da, behin behineko zerrenda argitara emateko modu berean, eta izangaien behin betiko zerrenda onartuko du.

Bigarren: Epaimahai kalifikatzaileko kideak izendatzea. Honako hauek osatuko dute epaimahaia:

Epaimahaiburua:

— Jesus Mendizabal, Debako Udaleko kontuhartzailea.

Mahaikideak:

— Ana Belen Hidalgo, Debako Udaleko idazkaria.

— Kontxi Alonso García, IVAPek izendatuta.

— Raimundo Amutxastegi, Debako Udaleko administraria.

— Amaia Zinkunegi, Debako Udaleko administraria.

— Julian Cabezas Urquiaga, IVAPek izendatua euskara probak zuzentzeko.

Idazkaria:

— Nere Lore Egaña, Debako Udaleko administraria.

Hirugarren: Izangaiei lehenengo ariketara dei egitea (hautagaia lanpostuaren profilari egokitzen den jakiteko edo lanpostuaren egitekoak betetzeko behar diren trebetasunak dituen jakiteko, ariketak), uztailaren 4an, goizeko 9:30etan, Debako Udaletxean.

AYUNTAMIENTO DE DEBA

Aprobación de la lista provisional de candidatos/as admitidos/as y excluidos/as para participar en el concurso-oposición para cubrir la plaza de administrativo/a de intervención y secretaría, nombramiento del tribunal y fijación de fecha para realizar el primer ejercicio.

La convocatoria y las bases del concurso-oposición para la cobertura de una plaza de administrativo/a de intervención y secretaría, próximamente vacante en la plantilla del Ayuntamiento de Deba, se publicaron en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, n.º 51, de 16 de marzo de 2016.

Expirado el plazo de presentación de solicitudes y después de haber estudiado las solicitudes y los documentos presentados, tal y como se recoge en las bases n.º 4 y 5 de la convocatoria esta Alcaldía, en uso de las atribuciones conferidas resuelve lo siguiente:

Primero: Aprobar la lista provisional de aspirantes admitidos/as y excluidos/as para participar en las pruebas de selección, y asimismo, detallar cuáles han sido los motivos de exclusión:

15385333N Admitido/a.

Los/as candidatos/as excluidos/as tendrán un plazo de diez días hábiles contados a partir del día siguiente al de esta publicación, para poder subsanar los errores que han motivado su exclusión o para poder presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

La lista provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se presentan reclamaciones. Las reclamaciones se resolverán mediante resolución. Esa resolución aprobará la lista definitiva de los/as candidatos/as y se publicará, de la misma manera en la que se publica esta lista provisional.

Segundo: Nombrar a los miembros del tribunal calificador. Los miembros del tribunal serán los siguientes:

Presidente del tribunal:

— Jesús Mendizabal, interventor del Ayuntamiento de Deba.

Vocales:

— Ana Belen Hidalgo, secretaria del Ayuntamiento de Deba.

— Kontxi Alonso García, administrativa designada por el IVAP.

— Raimundo Amutxastegi, administrativo del Ayuntamiento de Deba.

— Amaia Zinkunegi, administrativa del Ayuntamiento de Deba.

— Julian Cabezas Urquiaga, designado por el IVAP para la valoración de las pruebas de euskera.

Secretaria:

— Nere Lore Egaña, administrativa del Ayuntamiento de Deba.

Tercero: Llamar a los/as aspirantes al primer ejercicio (pruebas para determinar si la persona aspirante se ajusta al perfil del puesto de trabajo y/o evaluar sus aptitudes en relación con las precisas para el desempeño de las funciones del puesto), que tendrá lugar el día 4 de julio a las 9:30 horas en el Ayuntamiento de Deba.

Laugarren: Onartutako eta baztertutako zerrenda, epaimahaikideen zerrenda eta lehen ariketa egiteko eguna eta lekua Debako Udaleko Web orrialdean eta iragarkien taulan argitara ematea.

Deba, 2016ko ekainaren 27a.—Pedro Bengoetxea Loiola,
alkatea. (4699)

Cuarto: Publicar tanto la lista provisional de admitidos/as y excluidos/as, como los miembros del Tribunal Calificador, y la fecha, hora y el lugar para realizar el primer ejercicio, en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Deba.

Deba, a 27 de junio de 2016—El alcalde, Pedro Bengoetxea
Loiola. (4699)